



# EKITALDIZ BLAI ASTEBURUAN BONBERENEAN

Bonberenea irriariaren inaugurazioa egingo dute bihar; musikarako tartea ere izango da, Atila y los Unos eta Laketekin ▶

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Ostirala  
2009-01-09**

VII. URTEA 1.598. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

▶ [WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Aurtengo aurrekontuak onartu dituzte, %3,4ko murrizketarekin

**TOLOSA** 2008ko azken Osoko Bilkuran onartu zuten udal ordezkariak aurrekontua; 35.557.996 eurokoa izango da

**INBERTSIOAK** 2009an zehar inbertsioetarako erabiliko den diruaren ia erdia To.pic bideratzeko izango da 3



Ikasleek eskolak amaituta ederki igaro zuten elurrarekin jolasean. N. LATABURU

## ZURI-ZURI, GAZTEENEN GOZAMENERAKO

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** Gogotik egin zuen atzokoan elurra gurean; paisaia ederrak eta jolasak utzi zituen, baita trafiko arazoak ere 4

## Abiarazi dute III. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa

**ADUNA** Asvineneak hirugarren urtez antolatu du; parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete jadanik; azken eguna martxoaren 27a izango da 6

**Herritarrak**  
Gaztetxera  
hurbiltzea  
lortuta, «pozik»  
urteurrenarekin

**ALEGIA** Balorazio positiboa egin dute arduradunek; «ildo beretik» jarraituko dute 5

**JOSEBA OTAEGI**  
2. MAILAKO TXAPELDUNA

«Txapela baino Lehen Mailara igotzea da garrantzitsuen»

**ZIZURKIL** Aizkolaria maila gorenean ariko da 7

txokoa **h**



**2 sarrera pare**  
zozketan, deitu eta eskuratul!

**AKABA BERA BERA**  
Monovar

LARUNBATA

**URTARRILAK 10-19:00**

Donostiako Bidebieta Kiroldegian



**Sarrera pare**  
zozketan, deitu eta eskuratul!

**BRUESA GBC**  
FC Barcelona

IGANDEA

**URTARRILAK 11-12:30**

DONOSTIAKO ILLUNBE

**Z Zurea da hitza**

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailaz, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

**Agur eta ohore Joxemai!**

Urte hasiera gogorra dugu hainbat eta hainbatek, bizitza gogorra dala diogu, baina benetan gogorra dana lagun bat galtzea da. Zer esanik ez gaztetasun guztiz beteriko pertsona izanik, bere lagun lagun, jator, alai, eta pertsona ona, benetan ona!!

Zure bihotza gelditu egin da bai, baino gure buruan eta pentsamenduetan beti emango ditu taupadak.

Benetan ezagutu zaitugunak badakigu zer galdu dugun, baino eskerrak eman behar dizugu izan zarena izan zarelako.

Hitzak haizeak ematen omen ditu bai, baino esan beharrak esan behar dira:

Agur eta ohore Joxemai!

**Irruratik**

**Palestinako eta Euskal Herriko askatasunaren alde**

Marxismoaren azken helburua sozialismoa da, klaserik gabeko gizarite bat. Palestinako edo Euskal Herriko, arazo nazionalari ikuspegi honetatik aurre egiten dio. Bietan herri bateko klase dominatzaile batek, burgesiak, Estatuaren aparatua erabiliz, bere herriko langile klasea eta beste herri bat zapaltzen dute. Zapaltzen duten herria ere, adiskidetu ezin diren langileriaz eta kapitalistaz osatuta dago. Kapitalismoak ezin ditu arazoak konpondu areagotu baizik. Ezta nazionalismoak ere ezin du arazo nazionalarekin bukatu. Zapalkuntza nazionala eta sozialaren aurka langile internazionalismoa eta iraultza sozialista da alternatiba bakarra. Arabiako, Espainiar Estatu, Europako eta Munduko He-

rri Libreen arteko Federazio Sozialista bat. Leloa Manifestu Komunistarena izan dadila: Herrialde guztietako langileak elkar zaitetze!

**Manu (Anoeta)**

**Herriko errepideak hobeto zaindu**

Egun askotan sekulako zuloa egon da Kondeko Aldapatik Iurreamendi egoitzara joateko bidegurutzean. Orain konpondu dute, eta gauzez ez zan aparkatu behar. Ez det uste inolako abantia danik aparkatu beharra izateko egunero ordaindu beharra izatea. Agian, egunero euro bat ordaintzea ez da hainbeste izango, baina lehen delalde izaten zan, beraz, ez esateko neri aukera ona dala.

**Saioa (Tolosa)**

arte hola aparkatzen baigenun. Orain, gainera, aparkaleku publiko berria zabaldu dute, eta erabiltzaile gutxi dituela ari dira esaten. Horregatik, gaueko prezio bereziak jarri dituzte, euro batera gaua eta abar. Berritoren esango det gauza bera. Orain arte etxe azpian edo etxetik gertu aparkatzen genun, eta gauzez ez zan aparkatu behar. Ez det uste inolako abantia danik aparkatu beharra izateko egunero ordaindu beharra izatea. Agian, egunero euro bat ordaintzea ez da hainbeste izango, baina lehen delalde izaten zan, beraz, ez esateko neri aukera ona dala.

**Saioa (Tolosa)**

**Euskal Herria kaleko egoera**

Behin eta berriz errepikatzen da Ibarra, koto sarreran, Euskal Herria kalean, kotoak doble filan aparkatuta daudela. Jendeak zerbait hartzea joateko hori egiten du, kotoa gaizki utzi eta tabernara joan lasai lasai. Bost axola norbait izorratuko duzun. Gainera, berdin dio errepidean utzi ala espaloian, izan ere, badaude kotoe batzuk Ibarra, koto sarreran egunero egunero espaloian gainean uzten dutenak, eta bai, ondoko tabernara joateko zerbait hartzea.

Niri ez zait batera normala iruditzen, eta norberak ez badu ondo egin nahi, ba orduan Udalak edo dena delakoak neurriak hartu beharko lituzke, isunak adibidez.

**Luis (Ibarra)**

**Zorionak herri txikiakoei**

Herri txikiakoen lana ikaragarria da eta zoriontzeko aprobetxa-

**B Blogteka****Errege Magoak (Zeintzuk ziren?)**

Errege Magoen inguruan asmakizun dexente daude; askotan handikeria eta bestetan tradizioaren izenean egindako aldrebeskeriak. Baina hori Kristautasunetik al dator?

Bibliako Itun Berriari irakurketatxo bat egin, Mateoren Ebanjelioa zehazki, magoak) azaltzen dira baina ez erregerik, ez kopururik, ez izenik...

Orienteko jakintsu batzuk izar baten atzetik zetozen Jerusalem, Judutarren Errege jaio berriaren bila; Belenen Jesus topatu eta opariak eskaintzen zizkioten (urrea, intsensua,...).

**Kitto!**

**Hirukide ikastetxea**

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/hirukide>

tu egin nahi dut. Azkeneko adibidea Eguberrietan eman digute. Olentzero eta Errege Magoen kabalgatan atzetik lan handia egon da, eta guztia ondo atera zen. Iruan umeen ilusioa ikustekoa zen eta hau dena atzetik dagoen jendea eriker izan da posible. Nire semea behintzat oso gustura dago eta sekulako emozioa zuen ikustean Olentzero herrian zegoela eta Errege Magoek euren izena dakie. Suposatzen dut guraso direnek ulertuko dutela zertaz ari naizen.

Nik Irurakoa ikusten dut, baina imajinatzen dut beste herri txikietan ere lan hori egingo zela. Hemendik eskerririk beroenak.

**Irrur bat**

**K Kirol jarduera**

**Bihar**

**Saskibaloia**

■ Usabalgo goiko kantxan 10:30etatik aurrera hiru partida izango dira Infantilen Mailan: nesketan, TAKE A- Iragaz; mutiletan, TAKE A- TAKE B eta TAKE C- Easo Peñafloida.

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etatik aurrera, Kadeteen Mailan, mutiletan, TAKE Tovar, BKE.

■ Usabalgo goiko kantxan, 16:00etatik aurrera, Jubenilen Mailan, TAKE Orbelaa-Easo A.

■ Usabalgo goiko kantxan, 18:00etatik aurrera, Nazional Mailan, Bide Bide Ibizat-Tabirako.

**Pilota**

■ Beotibar pilotalekuan, 16:30ean Esku pilota partidak profesionalentan. Binakako Txapelketa: Berasaluze VIII eta Begino - Irujo eta Goñi III.

**Mahai tenisa**

■ Usabalgo gymean mahai tenis partidak jokatu dituzte Tolosa taldekoek arratsaldeko 16:30etatik aurrera.

**Futbola**

■ Berazubiko futbol zelaian, 16:30ean Gazteen Nazional Maila: Tolosa CF- Athletic Club.

■ Usabalgo futbol zelaian, 10:00etan, Infantilen Oho-rezko Mailan: Tolosa CF- Real Union.

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:30ean, Jubenilen Oho-rezko Mailan, Tolosa CF- Aloña Mendi.

■ Usabalgo futbol zelaian, 15:30ean, emakumezkoen mailan, Tolosa CF- Beti Gazte.

■ Usabalgo futbol zelaian, 17:30ean, Lurraldekoen Lehen Mailan, Tolosa CF- Elgoibar.

**H Hilberria****MIKEL SADABA MUÑAGORRI**

gaztea  
«Gure doluminak  
helarazten dizkiogu familiarri»



Gipuzkoako euskal pilota federazioa  
Gipuzkoako pilota elkarteak



URKIZU  
2009ko urtarrilaren  
9a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldekohitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**  
zerbitzu iraunkorra

**BULEGOAK:** Andoain · Donostia (Bellatokia)  
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)  
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja  
Tolosa (Bellatokia)



Inbertsioen atalerako zazpi milioi euro inguru bideratuko dira, honen ia erdia Txotxongiloen Nazioarteko Zentruarentzako izango da. HITZA

## %3,4ko murrizketa duen aurrekontua onartu dute udal ordezkariak

**Tolosa** » 2008ko azken Osoko Bilkuran onartu zuten hau; 35.557.996 eurokoa da aurtengoa; iazkoa baino baxuagoa.

### ESTI EZEIZA

Abenduaren 30ean, urteko azken Osoko Bilkuran 2009ko aurrekontuak onartu zituzten, Tolosako udal ordezkariak. Hau, denera, 35.557.995 eurokoa da. Ogasun sailak aurkeztutako aurrekontuak, EAJ eta EAren aldeko botuak jaso zituen, PSE-EE eta PP berriz abstenitu egin ziren, eta EB-Aralarrekin aurka bozkatu zuen.

Ogasun sailekoek azaldutakoaren arabera, «2009ko aurreikuspenak, egun bizi den krisi egoera kontuan hartuta egin dira». Aurrekontu orokorra 35 milioi eurotik gorakoa bada ere, hauetatik

**Fondo Foralaren eta obra eskaeren gutxitzea nahiz krisia dira murrizketen arrazoietakoz batzuk**

**2009an inbertsioetarako erabiliko den diruaren ia erdia To.Pic bideratzeko erabiliko da**

28.041.000 izango dira Udalak kudeatuko dituenak, gainontzekoak, enpresa publikoentzako izango da. Hala, zifrak alderatuz gero ikusi daiteke, iazkoa baino baxuagoa dela aurrekontua, %3,74 txikiagoa.

Aurreikuspenak egiteko garaian, ohiko sarreraren artean, ondorengo baldintzak hartu dituzte kontuan. Alde batetik, ordenantza fiskal guztietan onartu zen bezala, KPIaren arabera igoko dira tarifak, hau da %1,5a. Bestalde, 2009an, herri finantzaketarako Fondo Foralaren murrizketak egongo dira. Azkenik, aipatzekoa da, obra baimenen eskaera ere gutxitu egingo dela ziurrenik aurrean, ondorioz, honen gaineko zergen ekarpena ere bai.

Honen bestez, sarreraren kopurua txikiagoa izango dela aurreikusten denez, sail guztietan murrizketak egon dira. Salbuespen gisa aipatu daitezke Gizarte Zerbitzuen saila eta Berdintasunerakoa. Bestalde, laguntzen politikarekin berdintenduko da.

### Pertsonal gastuan aldaketak

Irailean egindako Osoko Bilkuran onartu zuten Tolosako udal ordezkariak Udaltzako hitzarmena. Honen ondorioz, udal langileen soldadak KPIa + %1 igoko dira aurrean. Hau da, %2,5 (1,5 + 1) gutxi gorabehera. Bestalde, alkate eta zinegotzien soldadak hizoztean erabaki dute, eta ez zaie igoerarik aplikatuko.

### Inbertsioetan, beherakada

7.033.000 euro erabiliko dira aurrean inbertsioetarako, horietatik 3.446.000 Txotxongiloen Nazioarteko Zentro berrirako erabiliko dira. Bestalde, Zumardi Handiaren aldaketak aurrera eramateko, beste 1.045.000 euro bideratuko dituzte. Azkenik, 1.000.000 euro

### » SARRERAK

Kontzeptua	Sarrerak, denera	Ohiko sarrerak	Kapital sarrera
Zerga zuzenak	4.612.000	4.612.000	-
Zeharkako zergak	800.000	800.000	-
<b>Tasak eta beste sarrera batzuk</b>	<b>3.413.016</b>	<b>3.413.016</b>	<b>-</b>
Ohiko transferentziak	12.547.000	12.547.000	-
Ondarezko sarrerak	1.004.984	1.004.984	-
<b>Besterenaganako inbertsioak</b>	<b>1.045.000</b>	<b>0</b>	<b>-</b>
Finantzario aktiboak	0	0	-
Finantzario pasiboak	1.900.350	0	-
<b>Denera</b>	<b>28.041.000</b>	<b>22.377.000</b>	<b>5.664.000</b>

### » GASTUAK

Kontzeptua	Sarrerak, denera	Ohiko sarrerak	Kapital sarrera
Pertsonal gastuak	7.905.000	7.905.000	-
Finantza gastuak	496.000	496.000	-
<b>Erosketak, ondasun eta zerbitzuak</b>	<b>8.393.052</b>	<b>8.393.052</b>	<b>-</b>
Ohiko transferentziak	3.655.948	3.655.948	-
Inbertsio errealak	6.633.000	0	-
<b>Kapital</b>	<b>400.000</b>	<b>0</b>	<b>-</b>
Finantzario aktiboak	0	0	-
Finantzario pasiboak	558.000	558.000	-
<b>Denera</b>	<b>28.041.000</b>	<b>21.008.000</b>	<b>7.033.000</b>

### » UDALAREN OHIKO AURREKONTUA

Kontzeptua	2008	2009	08/09 bariozioa
Ohiko sarrerak	24.672.000	22.377.000	-2.95.000 / -%9,30
Ohiko gastuak	20.412.000	21.008.000	596.000 / %2,92
<b>Aurrezpena</b>	<b>4.260.000</b>	<b>1.369.000</b>	<b>-2.891.000 / 67,86</b>

Voith-Gorostidi eremuko aparkalekuen erosketarako erabiliko dira.

Aurrekontuen baitan agertzen ez bada ere, Espainiako Gobernu-

tik hiru milioi euro jasoko ditu Tolosako Udalak. Baina jarritako baldintzen ondorioz, hauek, kontuetan agertzen ez diren proiektuetarako erabili beharko dira.

## L Laburrak

### Rekondoren hitzaldia Mintzolan, astelehenean

**VILLABONA** » Datorren astelehenean, hilaren 12an Aritzta Kultur taldeak antolatuta hitzaldia izango da Mintzolan. 19:30etik aurrera, *Kapitalismoa eta globalizazioa* izenburupean mintzatuko da Txente Rekondo. Elkarrekin antolatutako ekimenaren baitan, hurrengo saioa otsailaren 16an izango da. Orduan, Euskal Herriko ekonomiaz eta aukeretat mintzatuko da Oskar Arantzabal.

### 'Hire zain' antzerkia ikusgai da bihar, Gurean

**VILLABONA** » Antzerkiaz eta zinemaz gozatzeko aukera izango da asteburu honetan Villabonako Gurea aretoa. Hasteko, bihar, 17:00etan, *Hire zain* izeneko haur antzerkia ikusteko aukera izango da. Ondoren, 19:30ean eta 22:30ean, *Cenizas del cielo* filma eskainiko dute. Igandean berriz, 17:00etan *High School Musical III* izango da ikusgai, eta 19:30ean, berriz, *Cenizas del cielo*. Azkenik, astelehenean, hau da, ikuslearen egunean, *Cenizas del cielo* filma emango dute 21:30etik aurrera.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Germikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320



## Paisaia zuriak gazteenen gozamenerako

**EGURALDIA** • Eskualde osoa txuriturik esnaturik zen atzo, eta egun osoan zehar elurra mara-mara egin zuen. Traba handiak eragin zituen, bai autoz mugitu behar zutezentzat, bai eta oinezkoentzat ere. Elurrak, ordea, esanahi desberdinak izaten ditu, izan ere, batzuentzat oztopo den bezala, beste batzuentzat, gazteenentzat, jolaserako aitzakia izan ohi da. Elur bolak elkarri tiraka gustura ibili ziren, beraz, gazte asko, eta elurrezko pampinak ere nonahi ikusi ahal izan ziren. Ziur aldapak igo eta plastikoen nahiz trineoen gainean jeisten ere arituko zirela asko eta asko. Ukaezina da paisaia ederrak uzten dituela elurrak, baina, badirudi ez dela luzerako izango, izan ere, adituen arabera, tenperatura bajuek jarraituko dute, baina ez du elurrik egingo. NL

## Laket eta Atila y los Unos taldeak zuzenean, bihar, Bonberenean

**Musika** » Bonberenea irratia irenburuaren inaugurazioa ere egingo dute bihar; kontzertuak irratian bidez entzun ahaliko dira.

### ERREDAKZIOA

Bonbereneako kultur eskaintzak ez du etenik, eta urte berria hasieran ere egingo dute bihar; kontzertuak irratian bidez entzun ahaliko dira. Hain zuzen ere, Laket eta Atila y los Unos taldeak izango dira taula gainera igoko direnak.

Laket taldeak trikitixa doinuak zabalduko ditu Bonberenean; berriak dioten moduan, «erromeri talde bat baino gehiago» dira. Maitane Ayerza (trikitixa eta ahotsa), Aiora Urdangarin (panderoa, ahotsa, guiroa, kabasa), Zigor Sagarna (baxua, ahotsa), Iñigo Muñoz (bateria) eta Jon Mari (kitarra, ahotsa)



Atila y los Unos taldeko kideak. HITZA

dira trikiti taldeko ohiko partaideak.

Bestalde, Atila y los Unos taldeak 20 urte daramatzae eszenatokian, eta oraindik ere hasierako taldekide berdinek jarraitzen dute: Jesus Atila (abeslaria), Javi (baxua), Iñaki (kitarra), Xabi (bateria), Koldo (teklatura) eta Rober (rototoiak). «Zuzeneko taldeetat

jotzen dute beren burua. Abeslaria «showman» bat da, eta abestien arabera mozorrotu egiten da. «Jendearekiko komunikazioa» biltzen dute, «entzuleek parte-hartzea, animatzea eta dantza egitea». Taldearen «helburua ez da milaka disko saltzea, baizik eta ongi pasatzea eta jendearengana musika bidez hurbiltzea».

### Bonberenea irratia abian

Bonberenean beste ekimen bat jarriko du abian, Bonberenea irratia. Euren webgunearen ([www.bonberenea.com](http://www.bonberenea.com)) bitartez entzun ahaliko da, eta «etxeko gazteek egingo dituzte saioak». Kontzertuen grabaketak emango dituzte irratian bidez, eta aurrera begira, kontzertuak zuzenean emateko asmoa ere badute; «Tolosan egon ezin dutenei aukera hori ematea da helburua».

Hala, bihar, 16:00etatik 20:00etara egingo dute irratian berriaren inaugurazioa.



Imanol Rojo (eskuinetik bigarrena) Meaudre-ko (Frantzia) podiumean. HITZA

## Maila ona ari dira erakusten Alpinoko eskiatzaileak

**Eskia** » Mayencos Irekiera Txapelketan maila desberdinetan garaipena eskuratu dute herriko kirolariek.

### ERREDAKZIOA

Eski txapelketan lehiatzen ari diren Alpinoko Uzturre Mendi elkarreko kirolari oso maila altua ari dira erakusten. Mayencos Irekiera Txapelketan, esaterako, maila desberdinetan garaipena ere eskuratu dute. Senior mailan (10 kilometro) Ioseba Rojok bosgarren postua lortu du; junior mailan (10 kilometro) Imanol Rojo izan da irabazlea; kadete mailan (10 kilometro) Xabier Saizar izan da lehena; agilitxo mailan (5 kilometro) laugarren

egin du Iñaki Aldanondok; eta emakumezkoetan, beteranoen mailan, irabazlea Lourdes Amorriz izan da, eta bigarren Lourdes Irazusta geratu da.

Nazioartean lehiatzen diren eskiatzaileak Europako Kopan ari dira parte hartzen. Imanol Rojo laugarrena da, junior mailan, eta seniorren artean ere emaitza onak lortu dituzte. Alemanian eta Eslovenian izango dituzte hurrengo hitzorduak, eta urtarrila bukaeran eta otsailan Mundialetan ariko dira Imanol eta Ioseba Rojo. Xabier Saizar, berriz, Polonian otsailan izango den FOJErako (Gazteen Olinpiar Jokoak) sailkatu da.

Bestalde, pasa den asteburuan, Erlantz Gonzalezek eta Aitor Igarategik mendiko eskiko kontzentrazioa izan zuten Luz Ardidenen.







Babarrun-jatean giroa epeltzea lortu zuten bertsolariak. Egun hura AHTren aurkako Eguna izan zen Alegian. N. URBIZU

# «Gaztetxera herriko jendea gerturatzearekin gure helburua bete dugu»

**Alegia** » Gaztetxearen XXI. urteurrenaren balantzea «ona» izan da; ildo beretik jarraituko dute hurrengo urteurrena antolatzekean.

## NEREA URBIZU

Eta helburua bete du Alegiako Gaztetxeak: herriko jendea gaztetxera gerturatzea, hain zuzen. Honen XXI. urteurrena ospatu zuten abenduan zehar eta hori nahi zuten gehienbat, herritarrek ikustea. «Pozik gaude, jende dexente etorri delako eta herriko jendea batez ere: herrikoak zetozela ikustek poz handiagoa eman digu antolatzen aritu garenoi. Noski, kanpokoekin ere poztu gara».

Ekitaldi batzuk dirua ateratzeko izan ziren, gastuei aurre egiteko hobe esanda, eta «galtzen behintzat ez gara atera. Beraz, hori irabazten ateratzea da. Balantzea ona

izan da aurten». Dirua ez galtzeko ekitaldien artean Zea Maysen eta Humus eta Hesianen kontzertuak izan ziren. Zea Maysen 200 lagun elkartu ziren eta Hesian ikustera, berriz, Zerbeza feria ere egin zuten eta hilabeteko lehen ekitaldia izan zen.

Egitarauren baitan ping-pong txapelketa ere antolatu zuten eta baita Mus Txapelketa ere. Bazen, beraz, igaro den abendu hotzaren baitan gauza gozagarriak egiteko aukera.

## AHTren aurkako eguna

Zazpi Astoren Gainean bertso eskolako bertsolari batzuk aritu ziren babarrun-jatearen ondoren: Garmendia, Artola, Irazustabarrena, Iriarte eta Xabalaritu ziren Altxoko Laxorekin batera. 120 euro AHTren aurkako Alegiako taldearentzat atera zuten. Jarraian trikitipotea egiteko zegoen aurreikusitako baina bertan behera geratu zuen,

eguraldi txarra zela eta. Hala ere, jendea herrira jaitsi zen, gero berri kontzertuetara joateko. «Kanpoko jendea ere etorri zen kontzertuetara».

*Gernikaren heriotza* antzezlanak ikusteko aukera eman zuten Gaztetxeak joan den igandean Alproja talde zarauztarraren eskutik. Honetara 50 lagun gerturatu ziren eta «ondo egon zen». Honetaz gain, Amaiurri buruzko hitzaldi bat ematera hurbildu zen Aranzadi Zientzia elkarteak Juanxo Agirre. «Azalpenak ematen aritu zen eta interesgarria izan zen». Honetara ere jendea joan zen.

Playback-ak ez zuten huts egin aurten ere eta jendeak barre batzuk egin zituen animatu zirenen kontura.

## Helburuak beteta

Beraz, Alegiako Gaztetxeako antolatzaileak gustura egoteko arrazoiak dituzte, helburuak beteta



Amaiurko hitzaldian AUSA Gazteluz ere aritu ziren. HITZA

ikusten dituztelako eta herritarren erantzuna ona izan delako. Baina, aurreko batean azaldu bezala, «azken urteetan utzi xamarra genuen batez ere Gaztetxearen egitaraua, eta gure asmoa aurten urtean zehar ere ekitaldiak antolatzea izango da. Esaterako, zine-kluba berreskuratzeara».

Bestela ere, data egokiren bat edo librea dagoen egunen bat hurr-

## Zea Mays ikusten 200 lagun izan ziren baina jende kopuru gehiena Hesianek erakarri zuen

**Aurtengo asmoa urtean zehar ere ekitaldiak antolatzea da, data aproposak begiratzuz**

## XXII. urteurrenerako seguruenik orain arteko bidetik joko dute antolatzeke garaiak

biltzen dela ikusiz gero, «hori aprobetxatu eta gauzak antolatu ditugu: ikusiko genuke zer».

## XXII. urtearen bidea hasita

Datorren abenduan 22 urte beteko ditu Alegiako Gaztetxeak, ziuruenik, Tolosaldeko helduenak. Honetarako ere, nahiz eta goizegi izan ezer antolatzeke, segurua da bide beretik joko dutela, alegia, kontzertuak, urteroko playback-a eta abar egingo dituztela.

Gaztetxeke kideen aldetik eskerrik eman nahi izan dizkiete egun hauetan joan direnei eta modu batera edo bestera parte hartu dutenei: «Lanean gauzak ondo ateratzeko aritu direnei eta bestetik hauetaz gozatzera joan direnei». Honez gero hasiak izango dira XXII. urteurrenaren pentsatzen.

## Laburrak

### Herriko argazkiz osatutako egutegiak, udaletxean

**ALEGIA** » Urtero bezala argazki zeharrez osatutako egutegia egin dute Alegian eta banatu ere banatu dituzte. Hala ere, sobratu direnak udaletxean utzi dituzte nahi duenak hartzeko. Horman jartzeko dira, tamaina handikoak.

### Begiei buruzko Marce Tenaren margolanak

**ALEGIA** » Hilabete osoan zehar Alegiako jubilatuen tabernan Marce Tena ibartarraren margolanak izango dira ikusgai. Kasu honetan, 12 bat margolan daude eta guztietan gai bera islatu nahi izan du: gizakien begiak. Asteartetik igandera bitarte daude ikusgai.

### Euskadiko Pilota Liga bihar hasiko da Amezketan

**AMEZKETA** » Euskadiko Ligaren lehen jardunaldia asteburu honetan izango da eta bihar Amezketan Larrunari pilotalekuan 16:30ean norgehiagoka batzuk jokatuko dira. Binakako kadeteak ariko dira lehenik: Zazpi Iturri eta Zaramaga pilota eskolak, hain zuzen. Gero, banaka Zazpi-Iturri-Upo mendi izango dira eta bukatzeko, banaka baina nagusien mailan etxekoak eta Lemoa, aurrez aurre. Etzi, berriz, 16:00etan hasita, 22 urte azpiko binakako norgehiagoka izango da Zazpi-Iturri eta Bi aizperen artean. Gero ohorezko mailakoan Zazpi-Iturri eta Adiskide izango dira. Gogoratu behar da, pilotari hauek Euskadiko ligan daudela, Gipuzkoako Probinziallean emaitza onak eskuratutako dituztelako.

### Haur eskolan izena emateko epea zabalik dago

**ALBIZTUR** » Albizturko haur eskolan izena emateko epea zabaldu egin dute dagoeneko. 0 eta 2 urte bitarteko haurrak joan daitezke eta haurra jaioa egon behar da izena emateko. Hiru hilabetetik behin dago aukera izena emateko eta ez du zertan Albizturkoa izan behar. Izena emateko 688 65 11 79 telefono zenbakira deitu behar da. Sei haur joaten dira egunero eta bi hiritzaile daude haiekin.



Hesian taldearekin 250 lagun hurbildu ziren Alegiako Gaztetxera. SAIOA CABAÑAS

**@ Bideoak.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN webgunean egunkarian ikusteko ezinezkoa den atal bat aurkituko duzu: bideoa. Dagoeneko 103 bideo desberdin daude eta horietan jai kutsuko irudiak, politika, kirola, bertsolaritza, dantza, musika, euskara... ikusi ahal izango dituzu. 17 gaietan daude sailkatuta guztiak eta astetik atera gehiago sartzeko joango gara, irakurleak gauza berriak topa ditzan. Sartu eta gozatu hauek ikusten!

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza**. Etxebizitza alokatzen dut Lekunberrin. 104 metro koadro lau logelarekin eta bi komunarekin. Lehenengo pixua, berogailuarekin. 480 euro. 636 17 16 24.

### LANA

■ **Sukaldaria**. Ostegunetik igandera bitarte sukaldaria behar dugu,

oinarrituko sukaldaritza eta plater konbinatuak egiteko. Interesatuak deitu 943 69 18 55 zenbakira.

### GALDUTAKOAK

■ **GPS bat**. Oargi mendi elkarteke kide batek Garmin GPS bat galdu zuen joan den urtarrilaren 3an, Larraizko parking-ean. Norbaitek aurkitu badu 653 734 803 telefono zenbakira dei dezala.

## Behar-Zanako Lizasok Altzako Gabon Torneoa eskuratu du

**Villabona** » Beasaingo Iñigo Iruretaekin batera lortu zuten garaipena 22-16 Larrañaga eta Lopez bikotearen aurka.

### ERREDAKZIOA

Behar-Zanako Iñaki Lizasok Altzako Gabon Torneo irabazi berri du Beasaingo Iñigo Irureta bikote izan duela. Errege Egunean jokatu zuten eta 22-16 irabazi zioten Larrañaga azpeitiarrak eta Lopez bizkaitarrari.

Garaipen esanguratsua da Lizasok eta Iruretak lortutakoa, maila handiko aurkariak izan baitzituzten finalean. Larrañaga Euskal Ligako txapelduna izan da 22 urte azpikoetan eta Lopez orain bi aste Euskal Herriko Eskuz Binakako Eliteko txapelduna izan da.

### Aranburu-Iraeta, gaur txapelaren bila

Bestalde, gaur Amasako pilotalekuan seniorreko Gipuzkoako 3. Mailako finala jokatu dute Be-



Irureta eta Lizaso, Gabon Torneoko txapelak jantzita. HITZA

har-Zanako Ander Aranburu eta Arkaitz Iraeta bikoteak Arrasateko Agirre-Uribarren bikotearen aurka. Dagoeneko mailaz igota

dauden arren, txapela irabazten saiatuko dira Aranburu eta Iraeta. Finala 21:30ean hasiko da eta partida bakarrera jokatu dute.

## Bilerara deitu dute AHTren aurkako «indarrak biltzeko»

**Anoeta** » Eztabaida mahai gainean jartzea «inoiz baino garrantzitsuagoa dela» diote AHT Gelditu! Elkarlaneko kideek.

### ERREDAKZIOA

Anoeta AHT Gelditu! Elkarlanak batzar irekita deitu du bihar-ko, 10:00etan, udaletxean. Gizartean «proiektu honen aurkako jarrikeria hain zabaldua dagoen honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa iruditzen zaigu eztabaida mahai gainean izatea», azaldu dute. «Eztabaida hutsean» ezin dela geratu diote, «mamua gainean daukagulako eta orain hitzeta-

tiek ekintzetara pasa ezean, beranduegi izango delako». Gonbidapena horregatik luzatzen dutela diote eta baita «aurkako indarrak biltzeko ordua badelako».

Elkarlanak azaltzen duenez, orain gutxi jakin dute Legorreta eta Tolosa arteko tartean beste pauso bat eman dutela obrek in aurkera jarraitzeko. «Hurrengo zatia Hernialde eta Zizurkil artekoa denez gero», gaineratu dute, «badakigu hurrena Anoeta tartean izango dela. Borroka hau puskaka doana ez bada ere, anoetar garen aldetik, inoiz baino indar gehiagoz aurka egin beharrean garena uste dugu».

Anoetan zundaketen fasean daude. Gainera, lur jabeek, infor-

mazio gehiagorik eman ezean, euren lurretan sartzeko baimenik ez dutela emango esan dute. «Izan ere, nola eman baimena zehazki zer egin behar duten ez dakigunenez», galdetzen dute Elkarlanekoek. «Inork ez die esaten beren lur-sailetan zabortzea edo tunelen bat egingo duten eta bada etxea botara dioten ere ez dakienik». Horrelako egoera bat ezin dela ulertu diote. «Gizartearentzat hainbeste informazio irizketak ez daramazkela, ez ulergarria, ezta onargarria ere». Beste behin «gizarteari bizkarrak emanda aritzea» leporatzen diete AHTren bultzatzaileei. «Inozotzat bagintuzten, uste dugu argi geratu zaiela ez dela hala eta aurka egin behar denean hortzak erakusteko prest gaudela», gaineratu dute.

Azalduko arrazoak horiek mahai gainean jarrita, biharko batzar irekita joateko gonbidapena luzatzen dute Elkarlanekoek. Horrez gain, beste gonbidapen bat ere egingo dute. Izan ere, hilaren 17an, 12:00etan Urbinako (Araba) plaza-terrazan eta AHTaren lanetari- no egingo den manifestazio nazionalera joateko deia egingo dute. «Ez dugulako etsiko, denon artean, AHT geldituko dugul», diote proiektuaren aurkakoek.



Casual talde tolosarrak lortu du Lehiaketako sariketako bat. HITZA

## III. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa, abian

**Aduna** » Parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete dagoeneko; horretarako azken eguna martxoaren 27a da.

### » GALEN EGUTEGIA

- **Apirilak 17.** Lehenengo sailkapen gala.
- **Apirilak 24.** Bigarrenengo sailkapen gala.
- **Maiatzak 8.** Hirugarrenengo sailkapen gala.
- **Maiatzak 15.** Laugarrenengo sailkapen gala.
- **Maiatzak 22.** Lehenengo finalerdia.
- **Maiatzak 29.** Bigarrenengo finalerdia.
- **Ekainak 5.** Finala.

### ERREDAKZIOA

Asvineneak abian jarri du III. Poltsiko Antzerki Lehiaketa. Dagoeneko izena eman daiteke eta horretarako azken eguna martxoaren 27a izango da. Aurreko bi urteetan lehiaketak izandako «arrakasta» dela-eta erabaki dute aurten ere antolatzea. Hainbat helburu ditu Asvineneak lehiaketa antolatzerakoan. Alde batetik, formatu txikiko ikuskizunen sustapena eta zabaltzea. Bestetik teknika eszenikoen ikerketa, balore berrien formakuntza, kultur trukerako espazioen sortzea eta gestioa eta beste elkarrekin kolaboratzea.

Lehiaketan izena emateko beharrezkoak dira obraren testuaren kopia edo obraren sinopsia bidaltzea. Horrekin batera, piezaren titulua eta parte-hartzaileen izen artistikoa, parte-hartzaileen datu pertsonalak, harremanetan jartzeko telefono zenbakia eta piezaren behar teknikoak. Hain justu, parte hartu nahi dutenek [www.asvine-nea.com](http://www.asvine-nea.com) orrian aurkituko duten parte-hartze orria bete beharko dute. Bestalde, parte-hartzaileek 30 euro ordaindu beharko dute seinale bezala. Parte-hartzea amaitutakoan bueltatuko zaie kopuru hori. Edozein kontsulta egingo 685751844 zenbakira dei daiteke.

### 8 eta 15 minutu artean

Oinarri dagokionez, profesionalak zein amateurrek har dezakete parte lehiaketan. Antzerki obrak originalak izan behar dute eta iraulera 8 minututik gora eta 15 minututik behera izan behar du. Obraren kide kopurua, gaia eta teknika libreak izango dira eta parte-har-

tzaile bakoitzeko pieza bat aurkez daiteke. Antolatzaileak ez dira obraren gaiaren erantzule egingo. Lehiaketak aurrera egin dezan 16 pieza aurkeztu beharko dira gutxienez. Gehienek 24 obrak hartuko dute parte eta kopuru hori gainditzen bada, antolatzaileek egingo dute aukeraketa.

Guztira zazpi gala egingo dira. Lehenengo lauak sailkapenerako balioko dute. Bosgarrena eta seigarrena finalerdiak izango dira eta azken gala, noski, finala izango da. Asvinenean egingo dira eta 22:30ean hasiko dira.

Sailkapen gala bakoitzean bi obra aukeratu dute, finalerdietara joango direnak, bata epaimahaiaren erabakiz eta bestea ikusentzulegoaren botoari esker. Biak ados geratuz gero, epaimahaiak erabakitako bigarren obra izango dabigarren sailkatua. Finalerdi bakoitzetik ere bi obra sailkatuko dira finalerako. Hemen ere epaimahaiak eta ikusentzulegoek aukeratu dituzte.

Sariei dagokionez, hiru sari emango dira. Alde batetik obra onenari 1.000 euro emango zaizkio. Ikusentzulegoak aukeratuak obra onenari 500 euro emango zaizkio. Azkenik, promozio kulturari saria; parte hartzen duten obra batzuk Kafé Antzokietan beren ikuskizuma agertzeko aukera izango dute.

### Tolosaldeko komunikazio enpresa batek KUDEATZAILEA behar du:

Enpresaren kudeaketaz arduratzeaz gain (finantzak, fakturazioa, arlo komertziala...), hainbat eragilerekin izan beharreko harremanen kargu egingo den pertsona baten bila gabilta.

#### Eskatzen da:

- Kudeaketa-Administrazio arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritu izana eta eskualdea ondo ezagutzea.
- Euskara maila ona.
- Izaera dinamikoa, harremanetarako eta antolantzarako gaitasuna.
- Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa dutenek curriculuma bidali, argazkiarekin, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora edo beste helbide honetara, urtarrilaren 20a baino lehen. JARDUNA S.L. Giza Baliabideak Saila - Martin Ugaldel Kultur parkea - 20140 Andoain Erreferentzia: THHK209

**E Elkarrizketa**

**JOSEBA OTAEGI** › Bigarren Mailako aizkolari txapeliduna

# «Lehen Mailan ez daukat ezer galtzeko»

**Zizurkil** » Euskal Herriko maila gorenean ariko da Joseba Otaegi aizkoran hurrengo denboraldian, Bigarren Mailakoaren finalean txapela lortu ondoren.



HITZA

**ASIER IMAZ**

Bigarren Mailako Euskadiko Aizkora Txapelketa irabazi zuen abenduaren amaieran Arbizun Joseba Otaegik (Zizurkil, 1983).

**Nori eskaintzen diozu txapela?**

Nire familiari, neskari eta ingurukoiei. Hasieratik beti lagundu izan didatenguztiei. Honek lan asko eskatzen du eta ondoan egon diren guztxi eskaintzen diet.

**Nola aurkitu zinen finalean?**

Final honetan ondo, lasai behintzat. Uztaillean Gipuzkoako Txapelketa izan genuen eta kanpora-

ketan aurrea gelditu nintzen. Finalerako faborito garbi bezala ikusten ninduten baina oso gaizki ibili nintzen. Karga handiarekin iritsi nintzen finalera eta esperientzia txarra izan zen, nahiz eta ikasketak balio izan zuen. Orain berriz,

Euskadiko honetan, kanporaketan azkena egin nuen. Finalerako tarte horretan, presiorik gabe, askoz lasaiago egon naiz eta Arbizurako hobeto iritsi nintzen, fisikoki baino gehiago buruz. Gero nire eman nuen eta punta.

**Finalerdietan, hiruren artean?**

Lehen bi egurrek oso lasai bota nituen, eroso sentitzen nintzen, nire burua behartu gabe. Hirugarrenengo egurrean pasa nuen okerrean; piska bat zikina irten zitzaidan eta kateatu bezala egin nintzen. Gero buelta hartu nuen eta azken hiruretan berriro ere ondo aritu nintzen.

**Zein zen zure helburua, txapela ala 2. postua nahikoa zenuen?**

Niretzat, Lehen Mailara igotzea txapela baina garrantzitsuagoa da. Gero txapelarekin igotzen baldin bazara, askozaz hobe, baina ilusio gehiena Lehen Mailara igotzeak sortzen du; azkenean denok hori nahi baitugu.

**Orain nola moldatuko zara Lehen Mailan, aizkorako animalia handiekin?**

Imaginatzea zaila da. Askotan denborak eta erreferentziak hartzen dituzu baina gero egurretik egurrera aldea egoten da eta azke-

nean beraiekin neurtutakoan ikusi behar izaten da non zauden. Hurrengo urtean ez daukat ezer galtzeko, maila mantentzen saiatuko naiz, lan on bat egiten.

**Txapelketak amaitzean apustu garaia iristen da.**

Nik apusturen bat egingo nuke. Ez dakit, hiru bat hilabete hartuz gero eta txapelketako prestakuntza honen segidan... baina jokoak egiteko gauzak ondo egin behar dira. Ikusiko da, denborak erakutsiko du ea bakarren bat animatzen den.

**Prest egongo al zinateko apustuaren inguruan lehen pausoa emateko?**

Halamoduz ez naiz hasiko apustu bat botatzen. Baina iruditzen zait irailera arte txapelketarik ez dagoenez, utzialdi bat egiteko arriskua dagoela. Gero berriz maila hartzen kostatzen da. Ez dakit... jendeak nahi duela ematen du, askok komentatzen duten gauza bat da.

## Pirritx, Porrotx eta Mari Motots hilaren 23an kiroldegian

**Ibarra** » Pailazo ezagunek 'Piratak' emanaldia aurkeztuko du; Bartolaren Batzordeak antolatu du ekitaldia.

abenduaren 28an eta oraingoan Pirritx, Porrotx eta Mari Motots ekarriko dituzte kiroldegira hilaren 23an, 18:00etan, Piratak ikuskizun berriarekin.

**Sarrerak dagoeneko salgai**

Batzordeko kideen esanetan sarrerak jadanik salgai aurkitzen dira Ibarako Zubiaurre Tabernan, Lurdes dendan, Errotatxan eta Tolosako Zunbeltz disko dendan. Uzturpe Ikastolan ere atzo arratsaldean utzi omen zituzten

txartelak. Prezioari dagokionez 6 eurotan jarri dituztela aipatu dute.

**«Piraten piratak»**

Batzordeko kideek «Bartola Ibarren egiten ari den lana» azpimarratu nahi izan dute: «Denok daki-gu gure herriko egoera zein den. Guk sortuz irakatsiko diegu elkar-lana zer den, ikasi ez duten edo saldu egin duten horiei. Pirata diruzale lapur horien piratak izango gara; elkarrekin ari gara arraunean eta Bartola gure itsasontzia da».

**A. IMAZ**

Bartolaren Batzordeak ekitaldi kulturalak antolatzen jarraitzen du Ibarren. Herriko jaietan aurkeztu zuten euren burua, ondoren Bertso Jaialdia antolatu zuten

## Leitzako eta Lizartzako pilotariak txapelketetan

**Pilota** » Binakako Txapelketaren partidak jokatu dituzte gaur eta bihar, Lehen Mailan eta Bigarren Mailan.

Bertan Mikel Olaetxea lizartzarrik hartuko du parte Argoterekin bikotea eginez. Final-laurdenetako partida gaur jokatu du 21:30ean Del Rey-Galarza VLaren aurka Errioxako Baños de Río Tobia herrian.

**A. IMAZ**

Bi eskualdetako hiru pilotarik txapelketetako partidak jokatu dituzte gaur eta bihar.

Lehen Mailako Binakakoan, bi leitzarrak elkarren aurka ariko dira eta bigarren mailakoan, Mikel Olaetxeak Errioxan jokatu du estreinako jardunaldiari dagokien partida.

**Binakako Final-laurdenak**

Herenegun aurkeztu zuten Promozio Binakako BBK Txapelketa edo Bigarren Mailako Binakakoa.

**Leitzarren arteko lehia**

Eskuz Binakako Txapelketa nagusiaren bigarren jardunaldia jokatu da asteburu honetan. Bihar Gonzalez-Barriolak Iruñeko Labriten jokatu dute Bengoetxea VI-Belokiren aurka. Jaialdia 17:00etan hasiko da.

Astelehenean, ohi bezala Tolosan pilota partida jaialdia egongo da Beotibarren. Bertan, partidana gusian, Berasaluzeko VIII-Begino eta Martinez Irujo-Gofii III.aren arteko lehia ikusteko aukera egongo da 17:00ak aldera.



Pirritx, Porrotx eta Mari Motots Ibarren egongo dira urtarrilaren 23an 'Piratak' ikuskizunarekin. WWW.KATXIPORRETA.COM



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Zinema

■ **Tolosa.** *Australia* filma Leidor aretoan: gaur 22:00etan, bihar 19:00etan eta 22:00etan, etzi 18:45ean eta 21:45ean eta astelehenean (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

### Erakusketa

■ **Alegia.** Marce Tenaren begiei buruzko margolanak ikusgai asteartetik igandera bitarte Jubilatuen tabernan.  
■ **Tolosa.** *Geureak ere badira adingabe horiek*, bakarrik dauden adin txikiko atzeritarren inguruko argazki erakusketa eta bisita gidatuak Kultur Etxean.

### Deialdiak

■ **Aduna.** Asvinenea Kultur Elkarrekin III. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa antolatu du profesional zein amateurrentzat. Informazioa eta izen-ematea, [www.asvinenea.com](http://www.asvinenea.com) webgunean.

■ **Tolosa.** Alpino Uzturrek fondo-ko eski ikastaroa antolatu du hilaren 17 eta 18rako 1995-98an jaiotako haurrentzat. Irteera 7:15ean izango da; itzulera igande arratsaldean. Izen-ematea, 685 776504 edo [alpinouzturre@begira.com](mailto:alpinouzturre@begira.com).

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.  
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## Sahararako kilo gehien biltzea helburu

**TOLOSALDEA** • Urtero bezala, abiarazi dute aurten ere Sahararen aldeko Euskal Karabana, *Piztu Ibxaropena* lelopean. Tolosaldea Sahararekin elkarrekin ari da aurrera eramaten janari bilketa eskualdean, eta hain zuzen

ere, arroz, lekaleak, pasta, hegala oliotan, sardinak oliotan, azukrea eta konpresak dira utzi beharrekoak, udaletxeetan nahiz supermerkatuetan. Irudian, bildutakoa kamioietan pilatzen, pasa den urtean. ir.

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

## LIBURUA SALGAI

Salmenta:  
Liburuaren prezioa: 18 €  
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€	10 liburu 140 €
-----------------	--------------------

Salmenta puntuak:

- Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitzako bulegoetan,
- Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburudendetan.
- Ibarra Lurdes liburudendan.
- Villabonako Basajaun liburudendan.



1936KO GERRAKO  
OROITZAPENAK  
TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN

ARANZADI

galtzaundi

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

hitza